

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabako, Bastidako udalerrian, Buradon Gatzaga herrian sortutako hondakin urak isurtzeko baimenaren berrikustea

Espediente-zenbakia: RAV-A-2019-0018

Eskatzailea: Arabako Errioxako Urkidetza.

Arabako Errioxako Urkidetzak eskatu du Buradon Gatzaga herrian sortutako hondakin urak isurtzeko baimenaren berrikustea, dagoen HUAN tratatzen diren urenak eta urteko isurketa bolumena handitzen delarik. Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten Bastidako udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 17an

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGUIRRE ORCAJO